

Gida didaktikoa

**HAN ETA HEMENGO
IPUINAK II**

Igela eta sugea

Igela eta sugea

Gida didaktikoaren azalpena

- Gai-zerrenda : 1. or.
- Helburuak 2. or.
- Jarduerak 2. or.
- 1.- Ahozko hizkuntza 5. or
- 2.- Idatzizko hizkuntza 6. or
- Gidoi literarioa 4. or.

Bibliografia 15.or.

Egileak 16.or.

Gidaren azalpena:

HELBURUA:

Bideoan ikusitako istoriotik abiatuta, fikziozko testu narratibo bat (alegia bat) ekoiztea, ahozko kontakizun bat prestatzeko. Kanala: ahozkoa. Eremua: fikziozkoa. Hartzailea: haurrak eta gurasoak.

Testua ekoizteko, planifikazioko, testuratzeko eta gainbegiratzeko eragiketak egingo dira.

EDUKIAK:

BALIOAK: zuhurtzia. Arriskuekin jarrera zuhurra izatea eta arriskuak ez gutxieste.

IGORLEA:

Narratzailea lehenengo pertsonan

LEKUA :

Fikziozkoa

PLANIFIKAZIOA

EGITURA :

Hasiera :

Pertsonaia(k) izendatzea; Pertsonaia(k) psikikoki deskribatzea;

Korapiloa:

Gertakari desorekatzaileak; Egoera-aldaketak;

Trama :

Kronologikoki adieraziko da;

POLIFONIA :

Zehar-estiloa eta estilo zuzena.

TESTUALIZAZIOA:

Inguruaren koherentzia:

KOHESIO GESTUALA, MUGIMENDUAK eta ARTEFAKTUAK. Kontakizuna prestatzeko orduan, honi buruz hausnartuko da: kotalariaren keinuek eta ahots-aldaketek nola lagun dezaket.

Kontakizunean egoki ahoskatzeaz arduratuko gara, eta prestaketako saioetan honako fonema hauetaz arduratuko gara bereziki: TS; TX; TZ;

Izenen kohesioa:

GAIAREN KOHERENTZIA EDO MANTENUA

ANAFORA NOMINALA:

ORDEZKAPENA:

Honako erregistro hauen baliokideak gogoraraziko dizkiegu, eta antonimoak ere bai:
Ahulgune, hutsegite, akats, asebeste, baraua, sugea, euli,

Aditzen kohesioa:

Gertakari desorekatzaileak nabarmentzeko, aditzaren aspektu burutua erabiliko da narratzailearen sekuentzietan.

Aditz perifrastikoak: Nor(zer), indikatiboko orainaldi puntukaria, geroaldia eta baldintza.

Baldintza lantzeko, honako testu honetatik abia daiteke:

Kattalinek igelari aholkua eman zion :

Ni zu izango banintz, erne egongo nintzateke, sugea berriro saiatuko delakoan nago eta.

Hau ariketa baterako oinarri bezala erabil daiteke: AHOLKUAK EMATEN arrazoiz azalduz:

Ni zu izango banintz -ke-lako

Ni zure lekuan -keeta

Gu zuek izango bagina... -kebait-...

ANTOLATZAILEAK:

Bitartean, Bezain laster; Eta berehala; t(z)erakoan; -tzeaz batera / -az batera; -n arte;
Harik etaarte,

ANTOLATZAILE EZ LINGUISTIKOAK:

INTONAZIOA : Harridura; haserrea; poza; tristura; beldurra; misterioa; iseka.

NARRATZAILEA: (Erabaki agurra: kaixo, lagunok / jaun-andreok / haurrok)! Hemen nauzue, ipuin bat kontatzeko prest.

Behin batean, igel bat bizi zen. Bihur zuen izena. Egun batean, janari bila irten zenean, igel-
usaina heldu zitzaion, eta jatea pentsatu zuen. Igelak ere euli bat harrapatu nahi zuen.

Sugea igela harrapatzen saiatu zen, baina ihes egiten zion, eta gainera iseka ere bai.

Narratzailea sugearen ahotsa imitatuz: O! Ez! Hau amorrua! Ihes egin dit! Brrrrrr...

Narratzailea igelaren ahotsa imitatuz: Kar-kar-kar... Ez nauzu harrapatuko! Zer uste duzu, tentela naizela? Kar-kar-kar...

Narratzailea sugearen ahotsa imitatuz: Gaurkoz libratu zara, baina hurrengo batean ez da horrela gertatuko!

Narratzailea igelaren ahotsa imitatuz: Kar-kar-kar... Gaurkoz eta betiko, ni zu baino azkarragoa naiz eta! Kar-kar-kar... Korrok, korrok, korrok...

NARRATZAILEA: Sugeak, goseak eta lotsak eraginda, plan bat prestatu zuen. Igela oso pozik zegoen, euli asko harrapatu zituelako eta sugea saihestea lortu zuelako. Egia esanda, igela gaina hartuta zegoen, eta uste zuen ez zegoela arriskurik, sugea tuntuntzat jo zuen eta.

NARRATZAILEA: Baina sugea landarez mozorrotu zen, Zango engainatzeko. Zangok ez zuen amua irentsi, eta horrela esan zion:

Narratzailea igelaren ahotsa imitatuz: (Adarra jotzen) Kar-kar-kar... Hara, hara! Hau ere ikusi behar! Lore ibiltaria basoan! Nora zoaz, lore polit hori? Kar-kar-kar...

NARRATZAILEA: Igelak bazuen lagun bat, Kattalin katagorria. Igelak deitu zion eta barre egin zuen. Baina Kattalinek honela hitz egin zion:

Narratzailea Kattalinen ahotsa imitatuz: Ni zu izango banintz, erne egongo nintzateke, sugea berriro saiatuko delakoan nago eta.

Narratzailea: Bitartean, Bihurrek, lotsatuta eta gosetuta, honela esan zuen:

(Narratzailea Bihurren ahotsarekin): Ez dakit zerk mintzen nauen gehiago, lotsak ala goseak. Plan bat prestatu beharko dut. Baina zein?

Narratzailea: Hurrengo egunean, igelaren ohiturak, hutsegiteak eta ahuluneak ezagutzeko, zelatan jarri zen. Igela bapo ari zen asebetetzen.

Narratzailea: Igela zelatatu ondoren, sugeak igela engainatzeko bide bat aurkitu zuen: zizare baten itxura eman zion bere isatsaren amaierari, eta, igela harrapatzera joan zenean, sugeak igela jan zuen.

Narratzailea: Honela amaitu zen istorioa. Igela, aholkuei kasurik egin ez zenez eta gehiegi fidatu zenez, sugearen bazkaria izan zen.

Narratzailea: Honela bada edo ez bada, sar dadila kalabazan eta atera dadila Derioko plazan.

BESTE AUKERA BAT:

Gai honen inguruan eztabaida antolatzea: sugea gaiztoa da ala ez? Eta igela?

Eztabaida sortzeko, bideoaren sekuentzia hau erabil edo gogora ekar daiteke.

Eztabaidan, gogorarazi argudio zilegiak erabili behar direla.

NARRATZAILEA: Tira, ziur nago igelaren aldekoak zaretela, hau da, igelak irabaztea nahi duzuela. Bada, sugeek oso ospe txarra dute, baina ez dira beste edozein animalia baino gaiztoagoak. Ez, ez, ez... (Barre) / (Barre) / Tra-lara-laraaaa... / Aaaaaa! Hemen dago! Jakizue animaliek ez dutela asmo onez jokatzeko, ezta asmo txarrez ere. Haiek janari bila ibiltzen dira, besterik gabe. Bai, egia da sugeak saguak eta beste animalia txikiak jaten dituela. (Barre)

NARRATZAILEA: Baina igelak ere eltxoak jaten ditu, ez pentsa! Seguru nago euliek ez dutela igela gogoko, eta, normala denez, igelek sugea ere ez. Mmmmhn... Tira ba, ikus dezagun nor ateratzen den garaile, sugea ala igela! (Barre) Udaberriko egun argitsu horietakoa zen. Sugea epeletan lo-kuluxka egiten ari zen ohi bezala... eta igela, bere aldetik eta ohi bezala hura ere, euliak harrapatzen zebilen.

Gidoi literarioa:

IGELA ETA SUGEA

MARI: La-lara-laraaaa... Kaixo, lagunok! Hemen nauzue berriro ere, ipuin bat kontatzeko prest. Gaurkoa animaliei buruzkoa da. Izan ere, igela eta sugea dira protagonistak. (Barre) / Ohartuko zineten asko direla gure baso eta zelai bazterretan, eta liskar handiak izaten dituztela euren artean.

MARI: Tira, ziur nago igelaren aldekoak zaretela, hau da, igelak irabaztea nahi duzuela. Bada, sugeek oso ospe txarra dute, baina ez dira beste edozein animalia baino gaiztoagoak. Ez, ez, ez... (Barre) / (Barre) / Tra-lara-laraaaa... / Aaaaaa! Hemen dago! Jakizue animaliek ez dutela asmo onez jokatzeko, ezta asmo txarrez ere. Haiek janari bila ibiltzen dira, besterik gabe. Bai, egia da sugeak saguak eta beste animalia txikiak jaten dituela. (Barre)

MARI: Baina igelak ere eltxoak jaten ditu, ez pentsa! Seguru nago euliek ez dutela igela gogoko, eta, normala denez, igelek sugea ere ez. Mmmmhn... Tira ba, ikus dezagun nor

ateratzen den garaile, sugea ala igela! (Barre) Udaberriko egun argitsu horietakoa zen. Sugea epeletan lo-kuluxka egiten ari zen ohi bezala... eta igela, bere aldetik eta ohi bezala hura ere, euliak harrapatzen zebilen.

BIHUR: Zurrungaka

EULIA: Zzzzzz...

ZANGO: Korrok, korrok, korrok... Ñam... Jan egingo dut.... Korrok, korrok...

BIHUR: Hau da egun ederra! Beroa eta lasssaia! Ea zer aurkitzen dudan jateko! Snif, snif...

Uuhmm! Gaur zorte onean naiz! Igel-usaina heldu ez zait ba!? Mmmmmhh... je, je, je...

Mmmm! Hurbil dago. Ahogozoa egiten zait pentsatze hutsarekin! Mmm!

ZANGO: A zer gozoak diren euliak! Uuuuuhm! Korrok...

MARI: Sugea, barre maltzurra eginez...

BIHUR: (Barre) Ssssssssss...

MARI: ... eta iaioatasunez ezkututuz, zuhaixkarik zuhaixka zihoan. Eta igelari haginka egiteko prest zegoenean... non eta bere muturrean bertan pausatu zitzaion eulia. Eta...

EULIA: Zzzzzzzzzz...

ZANGO: Krok, krok...

BIHUR: O! Ez! Hau amorrua! Ihes egin dit! Brrrrrr...

ZANGO: Kar, kar, kar... Ez nauzu harrapatuko! Zer uste duzu, tentela naizela?

Kar, kar, kar...

BIHUR: Gaurkoz libratu zara, baina hurrengo batean ez da horrela gertatuko!

ZANGO: Kar, kar, kar... Gaurkoz eta betiko, ni zu baino azkarragoa naiz eta! Kar, kar, kar...

Korrok, korrok, korrok...

BIHUR: Hau ezin da horrela geratu. Zerbait bururatu behar zait. Hau gosssea!

EULIA: Zzzzzzzz...

ZANGO: Je, jeee... Hau betekada! Je! Nik uste dut hamaika jan ditudala! Azkena jango dut, eta banoa uretara! (Ad Libak)

MARI: Baina hantxe zegoen berriro ere sugea asmo gaiztoekin. Oraingoan landarez mozorrotu zen.

BIHUR: (Ad Libak. Euliarenak)

ZANGO: (Adarra jotzen hasi zaio) Kar, kar, kar... Hara, hara! Hau ere ikusi behar! Lore ibiltaria basoan! Nora zoaz, lore polit hori? Kar, kar, kar...

ZANGO: (Barre) Ez joan, jarraitu! Nire lagunak ezagutu nahi dituzu? Egon, deituko diet!

ZANGO: E, Kattalin, Kattalin, begira, begira... etorri, etorri...

KATTALIN: (Barre) / Kaixo!

BIHUR: Ni banoa hemendik, eta azkar! Hauxe behar nuen, beste animalien aurrean barregarri geratzea!

ZANGO: (Barre) E! Ez joan, ez izan lotsatia! Begira ezazue, lore ibiltari bat dugu hemen! Zatozte! / Zatozte!

KATTALIN: (Barre) / Non da, non da lore ibiltaria? Nik ikusi nahi dut. Kar, kar, kar...

ZANGO: Ja, ja, ja,! Ederra galdu duzue! Alajaina, sugea lorez mozorroturik ni harrapatzeko! / A zer piura harena! Ja, ja, ja! Amorratzen dago ni jateko! Baina izorra dadila, ni bera baino azkarragoa naiz eta! Ja, ja, ja!

KATTALIN: Ni zu izango banintz, erne egongo nintzateke, sugea berriro saiatuko delakoan nago eta.

ZANGO: Ja! Jai du horrek, bizkorrago ez badabil! Je, jee...

KATTALIN: Kontuz ibili gero! Etsaia ez da gutxietsi behar!

ZANGO: Bah!

KATTALIN: Uuummh...

BIHUR: Hau lotsa eta gosea! Ez dakit zerk mintzen nauen gehiago, lotsak ala goseak. Plan bat prestatu beharko dut. Baina zein? (Ad Libak)

MARI: Gau hartan batzuek beste batzuek baino hobeto egin zuten lo. Igelak pozarren... eta sugeak ez hain pozik, ezin baitzuen gertatutakoa burutik kendu.

BIHUR: (Aharrausika) Aaaa! (Nagiak ateratzen) Aaa! Egun berria, aukera berriak! Igela zelatatzea joango naiz. Haren ohiturak ezagutuko ditut eta horrela... errazagoa izango zait harrapatzea. Kar, kar, kar... Ssssss, Ssssss. / (Barre) / Ssssss, Ssssss.

MARI: Hartara, igela zegoen lekurantz herrestatu zen sugea beste behin ere. / Oraingoan zelatan egon besterik ez zuen nahi, igelaren hutsegite eta ahulguneak ezagutzeko.

ZANGO: (Barre) Honekin, lau jan ditut dagoneko. A zer gozoak diren! Gutizia dira! (Barre) (Abesten) Lari, leri, lero... Aja! Beste bat! Etorri hona! Ummmm! Primerakoa, oso gozoa! Hara! Jo, jo... Beste bat!

BIHUR: Ikustekoa da nola jaten duen! Bapo ari da asebetetzen! Eta ni baraurik! Aiii, hau amorrua! Jan egin behar dut ba igel nazkagarri hori! Brrr... E? A!

KATTALIN: Zergatik tematzen zara hura harrapatzen? Ahaztu ezazu, basoan beste zer janik ere bada eta!

BIHUR: Bai, baina ez nau inork barregarri utziko.

KATTALIN: Burugogorra zara gero!

BIHUR: Alde hemendik, edo zureak egin du! Brrrr!

KATTALIN: A zer jenio bizia! Aholku bat baino ez zen!

BIHUR: Ba, badakizu! Eskatu gabe, ez eman aholkurik!

KATTALIN:

BIHUR: Zoaz pikutara! Nik badakit zer egin behar dudan! . Esaten den bezala... "Pazientzia eta sarea, usoa da zeurea."

ZANGO: Hara, beste bat! Je, je, je... Hau eguna hau! Je, je... Jateari utzi beharko diot, bestela min egingo dit. (Barre)

BIHUR: (Barre) Lasai, zuk jan lasai, gizendu zaitetz! Azkenean, nik jango zaitut! Eta ordurako mokadu handiagoa izango zara. (Barre)

BIHUR: Uuumh! Ahogozoa egiten zait! Mmm!

ZANGO: Ai, a zer betekada hartu dudan! Ummmmh! Hauek biharko utziko ditut. Je, je... Ene, ezin naiz mugitu ere egin! Kar, kar, kar...

ZANGO: Ezin hobeto, postrea! Bapo! Honekin, egun biribila! Orain, bainatzera! Korrok, korrok, korrok...

MARI: Eta bainuaren ondoren, nola ez ba... lo-kuluxkatxoa! / ... Egun hartan dena ezin hobeto atera zitzaion igelari... / ... katagorria estu eta larri agertu zen arte.

ZANGO: (Zurrungak)

KATTALIN: Aaai, ai, aiii... ai, ene!

ZANGO: E, Kaixo, katagorri! Zer moduz joan zaizu eguna?

KATTALIN: Bueno, hainbestean! Eta zuri?

ZANGO: Je, je... Primeran! Zizare eta euli asko jan ditut, eta orain hemen nauzu, lasai-lasai! Jee!

KATTALIN: Ba, ni txiripaz libratu naiz. Sugearekin egin dut topo, eta ziztatu ez nauenean!

ZANGO: Ja, ja, ja! Suge hori ergela da! Ez du bakar bat ere asmatzen! Ja!

KATTALIN: Ba ni, zure lekuan, ez nintzateke hain harro ibiliko. Oso haserre dago zurekin.

ZANGO: Bo! Ez kezkatu, hura baino azkarragoa naiz!

KATTALIN: Zuk horrela badiozu...

KATTALIN: ... baina gogoan izan, beti ezin zara garaile atera!

ZANGO: Bo! Ez da jai, ezta jaioko ere, ni jango nauen sugea! Ja!

KATTALIN: Hobe zenuke hausnartu eta pentsatzea, harrokeriatan ibiltzea baino!

ZANGO: Ezidazu eguna hondatu, gaur dena biribila atera zait eta! Utzidazu gozatzen!

KATTALIN: Baina ez esan gero ez zaitudala abisatu! Ni banoa, agur...

ZANGO: E? e? (Iseka) Ez esan gero ez zaitudala abisatu!

BIHUR: Zizareak gustuko ditu, e? Nik emango diot ba zizarea! Zizaretzarra, hain zuzen ere!
(Barre)

MARI: Eta ilundu egin zuen. ... Amesgaiztoak izan zituzten denek.

BIHUR:

ZANGO:

KATTALIN: Jateari utzi behar diozu!

ZANGO: Asko jan behar dut!

KATTALIN: Oso lodia zaude! (Barre)

ZANGO: Birrindu arte!

KATTALIN: Sugeak jango zaitu...

ZANGO: Aaaa! Beste egun eder bat! Aaa! Ea zer dakarren gaurko egunak! Je, je... Atzokoa bezain oparoa bada, negua lotan igarotzeko beste kaloria pilatuko ditut! (Barre)

MARI: Artean Kattalin katagorria estu eta larri zebilen.

KATTALIN: Non demontre sartu da ba igel hori?

MARI: Sugeak igela jango zuen ezbairik gabe.

KATTALIN: Igel tuntun horrek ez dit kasurik egiten. Hala ere, abisatu egin behar diot. Gero gerokoak!

MARI: Eta arrazoi sendoak zituen, bai, kezkatzeko, zeren eta... handik oso hurbil...

BIHUR: Kar, kar, kar... Gaur igel-hankak jango ditut!

KATTALIN: Igela, igela!

ZANGO: Zer duzu horren goiz?

KATTALIN: Amesgaizto bat izan dut.

ZANGO: Ez hasi, mesedez! Utz nazazu bakean!

KATTALIN: Egin kasu! Sugeak jaten zintuela amestu dut!

ZANGO: Eta?

KATTALIN: Urrundu egin behar duzu eta beste leku batera joan!

ZANGO: Ez esan lelokeriarik! Ametsa baino ez da izan!

KATTALIN: Ai, ene!

ZANGO: Ja, ja, ja! Suge horrek ametsarekin konformatu beharko du, ezin nau harrapatu eta!

KATTALIN: Zuhur jokatu bederen! //

ZANGO: Bai, egon lasai, kontuz ibiliko naiz. A! Eta zu ere kontuz ibili, ea gaur zuri egiten dizun hozka! Ja, ja, ja!... je, je... (Bere buruari) Ni ez naiz suge tonto horren beldur, hori koldarren kontua da! E... e? Non sartu da?... Bo, berdin da!

BIHUR: Nik dakidan batek gaur ez du gosalduko! Ja, ja, ja!

ZANGO: Korrok, korrok... Hau da etsipena! Ez dago zizarerik! Korrok... korrok... Uuummmh... Tira, euliren bat harrapatuko dut! Geldi-geldirik egongo naiz, ea baten bat hemendik igarotzen den!

BIHUR: (Barre) Zzzzzz (Euliarena)

ZANGO: Korrok! Azkenean! Bazen euliren bat agertzeko garaia! Jummh! Berandu esnatu dira gaur, alajainkoa! Je, je, je!

BIHUR: Zzzzzz (Euliarena)

ZANGO: Hori, hori! Zatoz hona, laztana, zatoz nirekin! (Barre)

BIHUR: Zzzzzz (Euliarena)

ZANGO: Ez joan, nire gosaria zara eta!

BIHUR: Zzzzzz (Euliarena)

ZANGO: Bihurria zara gero, e? Ez joan, txikitxo, zatoz nirekin! Je,je...

BIHUR: Zzzzzz (Euliarena)

ZANGO: Brrr! Nekatzen hasita nago! Aditu?

BIHUR: Zzzzzz (Euliarena)

ZANGO: Jokoa amaitu da!

BIHUR: Aaaaaa! Zuk zeuk esan duzu! Jokoa amaitu da! Aaarrgh!!

ZANGO:

MARI: Bueno, haurrok, ikusi duzue gaurkoan igelak zorte txarra izan du benetan. Zorte kontua izan da ala zuhur ez ibiltzeagatik gertatu zaio? Aaaaaii! / Badakizue! Zuhur ibili, eta hurrengora arte! (Musuak)

BIHUR: A zer betekada hartu dudan gaur! Igela gizen-gizena zegoen! (Hasperenka) A!
Orain lo-kuluxkatxoa!

BIBLIOGRAFIA.

- AZKUE, R. M. (1989). Euskalerraren yakintza. Literatura popular del País Vasco II: Cuentos y Leyendas. Euskaltzaindia & Espasa Calpe. Madrid.
- Mundu zabaleko ipuinak (1981) Gero argitaletxea. Bilbo.
- DUESO, J. (1997). Cuentos y leyendas de Euskal Herria fantástica ROGER argitaletxea. Donostia
- BARANDIARAN IRIZAR, L. (1995). Antología de fábulas, cuentos y leyendas del País Vasco. Donostia
- BASILE, J. B. (1991). El pentamerón. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.
- JACOBS, J.(1987). Cuentos de hadas célticos. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.
- ANDERSEN, C. (1973). La sombra y otros cuentos. Alianza Editorial, S.A. Madrid.
- CURTIS, E.S.(1999). Las flechas mágicas y otros relatos de los indios cheyenes, comanches, wíchitas... José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona
- GUELBENZU, J. M. (1996). Cuentos populares españoles. Siruela argitaletxea. Bartzelona.
- AFANASIEV, A. N. (1983). Cuentos populares rusos I. Anaya argitaletxea.
- El gran encuentro. liburu bilduma. (1995). SM argitaletxea.
- PHILIP, N. (1995). El libro ilustrado de los mitos. Ediciones BUHO:, S.Alizia.
- GIBSON, M. (1984). Monstruos, dioses y hombres de la mitología griega. Anaya
- TAO TAO LIU SANDERS. (1984). "Dragones, dioses y espíritus de la mitología china" Anaya
- BRANSTON, B. (1984). Dioses y héroes de la mitología vikinga. Anaya

Interneteko helbideak:

www.Zernola.net: Alegiak/alegien zerrenda.

<http://www.pnte.cfnavarra.es/kzeta/ipuina.htm>

<http://www.teatroa.com/ipuinak.html>

<http://www.teatroa.com/ipuinak/36lamia.html>

EGILEAK

**GOIATZ
MULTIMEDIA, S.L.**

PRODUKTOREA:

Luisa Calvo

**EGITASMOA, GIDOIA
ETA GIDA DIDAKTIKOA:**

Luisa Calvo

**GIDA DIDAKTIKOAREN
EUSKARAKO ARDURADUNA:**

Joan Ignazio Bereziartua

**ZUZENDARITZA ETA
ERREALIZAZIOA:**

Mikel Val

SOINU BANDA:

Inhar Val

EDIZIOA:

Goiatz Multimedia, S.L.

TXOTXONGILOAK:
Goiatz Multimedia, S.L.

DEKORATUAK:
Sara García

TXOTXONGIOLARIAK:
Macarena Sobrón
Noemí Sobrón
Ana M^a Rodríguez

K 2 0 0 0 S . A .

Produktore exekutiboa:
Tomas Ugalde

Euskarako arduraduna:
Josu Varela

Bikoizketako zuzendaria:
Alvaro Sánchez

Sarrerako kanta:
Ana Tere Bengoetxea

Ahotsak:

Monika Erdozia

J. L. Irigoien

Pedro Arrieta

Ana T. Bengoetxea

Ramón F. De Castro

Kepa Kueto

Jon Goirizelaia

Tere Jaio

Eduardo Gorriño

Audioko teknikariak:

Ricardo Goti

Antonio González

Javier Artetxe

Nahasketak:

Gorka Lara

Juan C. Cantera

Produkzioko laguntzailea:

Ana Urresti

Koordinatzailea:

Jon Arce

EIMA 2000

**Ikasmaterial honek Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa
Sailaren egokitasun-aitormena du:
2004-12-16**

LEGE GORDAILUA: : SS-1039/04

**L.C. PRODUKTOREA
tel.: 945-230715**